# Kolore guztietako politikoak bildu ditu Elkarri-k Bilbon

*Elkarri aldizkariak 50. zenbakia kaleratu du*

Iñaki Uriarte / **Bilbo**

**Elkarri aldizkaria 50. zenbakira heldu da. Xede horrekin izen bereko gizarte mugimenduak hainbat politikari, sindikalista, kulturgile eta pertsonalitate bildu zituen bart Bilbon. Jonan Fernandezek azaldu zuen Elkarri-ren helburua; «bake zuzena lortzen lagunduko duten andamioak eraikitzea» dela adierazi zuen.**



XOUSE SIMAL

**Elkarri-k atzo Bilbon antolatutako festaren irudi bat.**

50. ZENBAKIRA helduaz batera Elkarri-k tarte bat hartu zuen lau urtetan zehar bidelagun izan dituen hainbat pertsona biltzeko, Bakearen Aldeko Konferentziak egoitza hartu zuen Bilboko hotel berean. Egungo aldizkariaren zuzendari Aintzane Ezenarrok azaldu zuen lau urteko ibilbidean era guztietako jendeari ateak irekita utzi dizkiola kazetak. Tarte horretan autofinantziazioa eta 3.000 harpidetza eskuratu dituela esan zuen.

Jonan Fernandezek balio eta elementu positiboak azpimarratzeko, batez ere besteen diskurtsoan, izan duen ahalmena aitortu zion aldizkariari. Elkarri ideia, gizarte babes, nazioarteko harreman eta proiektu berrien andamioak eraiki nahi dituela azaldu zuen.

## Politikari anitz leku berean

PPko Carmelo Barrio, PSE-EEko Odon Elorza eta Dimas Sañudo, HBko Jone Goirizelaia eta Juan Joxe Petrikorena, EAko Juan Carlos Goienetxea eta Rafa Larreina, IU-EBko Javier Madrazo beste hainbat jende ezagunen artean ibili ziren. Horien artean Sabin Intxaurraga eta Mari Karmen Garmendia Eusko Jaurlaritzako sailburua, Juan Maria Atutxa EAEko Parlamentuko presidentea eta Herrizaingo sailburu ohia, eta Margarita Robles Espainiako Entzutegi Nazionaleko epailea zeuden. Sindikalgintzaren eremuan ELAko Jose Elorrieta eta German Kortabarria, LABeko Txutxi Ariznabarreta, CCOOeko Santi Bengoa, UGTko Carlos Trevilla eta EHNEko Unzalu Salterainek Sabino Arrieta eta beste enpresari batzuekin konpartitu zuten aretoa.

Kultur munduan, hizlari izan zen Bernardo Atxaga idazlearekin batera, Loquillo kantaria, Xabier Elorriaga eta Arantza Urretabizkaia izan ziren Bartolome Erzilla ganbera orkestra eta Mikel Laboa entzuten.